



Mawla Mawla



ARTE PLASTIKO ETA MUSIKA  
EGONALDI DEIALDIA  
BALEAPOP #8

Moi Moi Elkartea / BALEAPOP Festibala  
21 rue de la République  
64500 Donibane Lohitzun

[facebook.com/baleapopfestibala](https://facebook.com/baleapopfestibala)  
[instagram.com/baleapop](https://instagram.com/baleapop)  
[baleapop.com](https://baleapop.com)

# Testuingurua

Moï Moï kolektiboak BALEAPOP festibalaren 8.edizioa antolatzen du 2017.eko abuztuaren 23-tik 27-ra Donibane Lohitzunen, Ducontenia parkean eta hiriko zentroan.

BALEAPOP iheskorra den ospakizun zoli (kontzertuak) eta plastiko (instalazio eta erakusketa) bat da, besta girokoa, garaiko sorkuntzaz eta bere esplorazioaz motibatua, belaunaldi guztieri zuzendua. Bere lurraldea anitza da, eta leku ustekabeko batzuen inguruan antolatua : hiriko parkea, itsas bazterra, museo, merkatua... Hasieratik, BALEAPOP-ek egitarau zorrotza baina kausi daitekeena proposatu nahi du, berezia eta idekia, pagatu behar diren eta urririko denbora azkar batzuekin.

Hastapenetik, festibalak musika eta arte garaikide hedatzaile eta ekoizle izan nahi du, forma eta alor artistikoak buruz buru jarri eta uztartzeko handinahikeriarekin, eta

elkarrizketa honen bidez, perspektiba eta egoera berriak sorrarazi.

8. edizioarentzat, festibalak gaurko sorkuntza gaztearen mezenasa bilakatzen da.

Beti arlo anitza sustengatu nahian eta kolektiboaren irudian, musika eta arte plastikoak elkartu nahi genituzke.

# Helburua

Arlo anitzeko (musika eta artea) obra bat burutu Baleapop festibalaren 8.edizioarentzat. Hautatutako artistak/artista kolektiboak obra berezi baten ekoizpenarentzat elkarlanean arituko dira, bi diziplinak uztartuz.

- Proposamena diziplina anitzekoa izan beharko du.

Gaia hautatzeko erabakia izan da artistak libre uztea beren ekoizpena baitan.

Aldiz, galdetua zaie festibalaren formatuari lotutako iradokitze eta oztopoeri begira erne egotea :

- Instalazio bat balitz, festibalaren egunezko eta gauazko bi dimentsio ezberdinak kontutan hartu, oroitu ere iragankorra izanen dela.
- Publikoaren dimentsio parte hartzaile bat pribilegiatu.
- Proposamen performatibo bat ere eskaintzeko aukera izan daiteke, festibalean zehar behin edo gehiagotan agerrarazia izanen dena.
- Kontutan hartu beharko dira festibalaren gune nagusiak (Ducontentia Parkea eta hiriko zentroa).

## Egonaldiaren datak eta lekua

Aste bat 2017.ko maiatzaren 15-etik 21-era Donibane Lohitzunen, leku aurkitzen ibiltzeko eta ikerketa fasea abiatzeko.

Aste bat 2017.ko abuztuaren 17-tik 23-ra obraren ekoizpenarentzat eta obra guneetan ezartzeko.

Data eta epe horiek aldakorrak izan daitezke hautatua izanen den proiektuaren beharren arabera.

## Itzultze publikoaren datak eta lekua

2017.eko abuztuaren 24-etik 27-ra Donibane Lohitzunen, Baleapop #8 festibala garaian, kanpoan (parkea, hondartza, hiriko zentroa). Galdeturik, gunearen argazki eta bere akustikoari buruzko informazio batzu bidaliak izan daitezke.

# Diru eta material Baldintzak :

4500€ko diru kopuru orokor bat eskainia da ekintza horrentzat, horrela banatzeko asmoa dugu baina ez da behin betikoa :

- 1000€proiektu eramaileen lansariarentzat - musika eta arte artistak - (ordainketa obra eskuratu eta gero, faktura batekin),
- 3000€obra osoaren ekoizpen gastuentzat (erosketa fakturak eta froga dokumentuak),
- 500€garraio eta/edo apairu gastuen parte hartzearentzat egonaldi denboran, froga batzuekin (gehigarriak, baita ere festibala garaiekoak, artistaren ardurapean) .

Parkearen ondoan kokatua den ekoizpen espazio bat proposatua, egonaldiaren bigarren astearentzat.

- Proiektuaren eramaileentzat festibalarako sartzeak (kopurua finkatua izanen da konbentzioaren izenpetze momentuan).
- Egonaldi eta festibala garaian, prentsa zerbitzua eta komunikazioa segurtatuak izanen dira.

NB :

Ibilgailu pertsonala azkarki aholkatua.

Egonaldi garaian proposatutako gelak ez dira bakarkako aloiamenduak izanen (finkatuak izanen dira konbentzioaren izenpetze momentuan).

Proiektu eramaile bakoitzak bere janari eta edarietaz arduratuko da egonaldi eta festibala denboran salbu neurri bereziak plantan ezarriak badira (finkatuak izanen dira konbentzioaren izenpetze momentuan).

Horrez gain :

- Egonaldi denboran 2 asteko aloiamendua proiektuaren eramaileentzat.
- Elkarrearen bulegoetan lan espazio bat proposatua, Donibane Lohitzuneko Garden Kolektiboan, egonaldiaren lehen astearentzat.
- Hiriko zentroan, eta Ducontenia

## Prestazioaren Zehaztasunak :

Kandidatuak bakarka edo kolektibo batekin aurkezten ahalko dira. Diziplina anitzeko obra bat izanki, aldez aurretik elkarrekin lan egin duten artista plastiko/ musikari bikote bat formatu egokia izan daiteke, edo lehen aldikotz elkarretaratzen direnak ere. Konbentzioaren izenpetzean proposatutako eta finkatutako egutegia errespetatua izan beharko da. Proposamenak kontutan hartu beharko ditu festibalaren gune nagusiak (Ducontenia Parkea eta hiriko zentroa) : kanpoko oztopoeri kasu eman beharko da (eguraldia...) eta gune publikoa (EPR normak errespetatu bereziki).

## Dozierraren Osaketa :

Onartua izateko, kandidatura dozierrak eduki behar ditu :

- Curriculum Vitae bat
- Dozier ilustratu eta/edo soinutsu bat artista bakoitzaren lan orokorra adierazten duena
- Artistaren motibazio eta xedeak esplikatzen dituen ohar bat proiektuari begira (ekoizpenaren zehaztasun guztiak, zirriborroa, simulazio, zatiak... ongi etorriak dira). Mediazio proposamen ohar bat ere ongi etorria da.
- Aurrekontua
- Profesional segurtamena ( MDA, AGESSA, SIRET zenbakia...).

## Deialdiaren Hartzaileak :

Artista guztiak, nazionalitate edo adin mugarik gabe.

## Hunkitutako Publikoa :

Publiko guztiak.

## Hautaketaren

## Batzordea :

Baleapop festibalaren taldea eta arte garaikidearen programazioaren erakusketa komisarioak

## Egutegia :

Proposamena aurkezteko epea :  
2017.eko Martxoaren 1a gauerditan  
(posta marka edo mailaren ordua  
froga bezala

## Bidaltzeko Moduak :

Proiektu bakoitzaren aurkezpen  
dozierra helbide horietara zuzendu  
behar da :

- Postaz :

Garden Kolektiboa  
Association Moï Moï / Baleapop -  
2017.eko egonaldi eskaintza  
21 rue de la République  
64500 Donibane Lohitzune

- mailez :

residence@baleapop.com

## Prozedura :

- 2017.eko Martxoaren 1a gauerdi aintzin.
- Proposamenen azterketa eta eskaintzen hautaketa. Taldeak kandidatuekin harremanetan sartzan ahalko da proposamenaren zehaztasunak galdetzeko.
- Festibalaren eskaera gutun ofiziala, hautatutako modalitateen arabera eta hitzarmen baten idazketa.

Argibide gehigarri guztientzat,  
emailez kontaktatzen ahal gaituzue :  
residence@baleapop.com



## 2015.eko Egonaldiaren Sariduna:

POLAR INERTIA kolektiboa, «Whiteout» in situ instalazio imertsiboa



## 2016.eko Egonaldiaren Sariduna:

IOURI CAMICAS eta YOURI FERNANDEZ, artista plastikoak. «How Many BPM ?» eskultura monumentala eta performentziak.





Moï Moï Elkartea / BALEAPOP Festibala  
21 rue de la République  
64500 Donibane Lohitzun

[facebook.com/baleapopfestibala](https://facebook.com/baleapopfestibala)  
[instagram.com/baleapop](https://instagram.com/baleapop)  
[baleapop.com](https://baleapop.com)